




Baliabide digitalak aukeratzea

Irakasteko eta ikasteko baliabide digitalak identifikatu, ebaluatu eta aukeratzea. Ikasketa-helburu espezifikoak, testuingurua, ikuspegi pedagogikoa eta ikasle taldea aintzat hartzea, baliabide digitalak aukeratzean eta horien erabilera planifikatzean.

Jarduerak

- ◆ Bilaketa-estrategia egokiak egitea, irakasteko eta ikasteko baliabide digitalak aurkitzeko.
- ◆ Irakasteko eta ikasteko baliabide digital egokiak hautatzea, kontuan hartuta delako ikaskuntza-testuingurua eta ikasketa-helburua.
- ◆ Modu kritikoan ebaluatzea iturri eta baliabide digitalen sinesgarritasuna eta fidagarritasuna.
- ◆ Baliabide digitalak erabiltzeko eta berrerabiltzeko balizko mugak aintzat hartzea (hala nola copyrighta, fitxategi mota, eskakizun teknikoak, lege-arauak eta eskuratzeko erraztasuna).
- ◆ Baliabide digitalak ikasketa-helbururako, ikasle talde baten gaitasun-mailarako eta aukeratutako metodologia pedagogikorako baliagarriak diren ebaluatzea.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Internet gutxi erabiltzea baliabideak aurkitzeko.	Gutxitan erabiltzen dut Internet irakasteko edo ikasteko baliabideak aurkitzeko, edo ia inoiz ez.
Esploratzailea (A2) 	Kontziente izatea eta oinarrizko moduan erabiltzea teknologia digitalak baliabideak aurkitzeko.	Interneten, bilaketa-estrategia sinpleak erabiltzen ditut irakasteko eta ikasteko eduki digital baliagarriak aurkitzeko. Badut hezkuntza-baliabideak eskaintzen dituzten hezkuntza-plataforma ezagunen berri.
Integratzailea (B1) 	Baliabide egokiak identifikatzea eta ebaluatzea oinarrizko irizpideak erabiliz.	Bilaketa-estrategiak egokitzen ditut, emaitzen arabera. Emaitzak iragazten ditut baliabide egokiak aurkitzeko, irizpide egokiak erabiliz. Baliabide digitalen kalitatea ebaluatzen dut, argitalpen-lekua, egilea, erabiltzaileen feedbacka eta halako oinarrizko irizpideak oinarritzat hartuta. Nire ikasleei interesgarriak irudi dakizkiekeen baliabideak hautatzen ditu, hala nola bideoak.
Aditua (B2) 	Baliabide egokiak identifikatzea eta ebaluatzea, irizpide konplexuak erabiliz.	Bilaketa-estrategiak egokitzen ditut, molda ditzakedan baliabideak aurkitzeko, hala nola lizentziaren, fitxategi-luzapenaren, dataren eta erabiltzaileen feedbackaren arabera bilatuz eta iragaziz. Aplikazio eta/edo jolasak aurkitzen ditut, ikasleek erabiltzeko. Ebaluatzen dut ea baliabide digitalak fidagarriak diren eta ea egokiak diren ikasleentzat eta delako ikasketa-helbururako. Erabiltzen ditudan baliabideei buruzko feedbacka eta aholkuak ematen ditut.
Liderra (C1) 	Baliabide egokiak luze eta zabal identifikatu eta ebaluatzea, alderdi garrantzitsu guztiak kontuan hartuz.	Bilatzailuez gain, beste hainbat baliabide erabiltzen ditut, hala nola lankidetzeta-plataformak eta gordailu ofizialak. Edukien fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatzen dut, irizpide jakin batzuk kontuan hartuz; edukien zehaztasuna eta neutraltasuna ere aztertzen dut. Ikasgelan baliabideak erabiltzean, testuinguruan jartzen ditut, hala nola haien jatorria eta balizko joera adieraziz.
Aurrendaria (C2) 	Hezkuntzan teknologia digitalen erabilera sustatzea .	Lankideei gidaritza ematen diet bilaketa-estrategia eraginkorren eta gordailu eta baliabide egokien gainean. Baliabideen esteken gordailu bat sortzen dut, behar bezala iruzkindua eta sailkatua, eta lankideen eskura jartzen dut, erabil dezaten.









Baliabide digitalak sortu eta moldatzea

Baliabideak (lizentzia irekikoak eta beste) moldatzea eta erabiltzea, zilegi bada. Hezkuntza-baliabide digitalak sortzea (bakarrik edo elkarlanean). Baliabide digitalak diseinatzean eta erabilera planifikatzean, aintzat hartzea ikasketa-helburu zehatzak, testuingurua, metodologia pedagogikoa eta ikasle taldea.

Jarduerak

- ◆ Existitzen diren baliabide digitalak moldatu eta editatzea, zilegi bada.
- ◆ Existitzen diren baliabide digitalak edo haien zatiak konbinatu eta nahastea, zilegi bada.
- ◆ Hezkuntza-baliabide digital berriak sortzea.
- ◆ Besteekin batera hezkuntza-baliabide digitalak sortzea.
- ◆ Ikasteko baliabide digitalak egokitzean edo sortzean, kontuan hartzea ikasketa-helburu espezifikoak, testuingurua, metodologia pedagogikoa eta ikasle taldea.
- ◆ Baliabide digitalei esleitzen zaizkien lizentziak ulertzea, bai eta baliabideak erabiltzeko orduan lizentziek zer inplikazio dituzten ulertzea ere.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Baliabide digitalak ez moldatzea.	Agian erabiltzen ditut baliabide digitalak, baina normalean ez ditut moldatzen edo ez dut baliabiderik sortzen.
Esploratzailea (A2) 	Baliabideak sortu eta moldatzea, oinarrizko tresnak eta estrategiak erabiliz.	Ofimatikako programak erabiltzen ditut besteak beste fitxak eta galdera sortak diseinatu eta moldatzeko. Aurkezpen digitalak sortzen ditut, irakasteko.
Integratzailea (B1) 	Baliabideak sortu eta moldatzea, ezaugarri aurreratu batzuk erabiliz.	Baliabide digitalak sortzen ditudanean (aurkezpenak, kasu), animazio, esteka, multimedia edo elementu interaktibo batzuk txertatzen ditut. Oinarrizko aldaketa batzuk egiten dizkiet erabiltzen ditudan ikasteko baliabideei ikaskuntza-testuingurura egokitzeko, hala nola zati batzuk editatuz edo ezabatuz edo ezarpen orokorrak egokituz. Ikasketa-helburu jakin batekin hautatzen, moldatzen, konbinatzen eta sortzen ditut ikasteko baliabide digitalak.
Aditua (B2) 	Baliabide digital aurreratuak ikaskuntza-testuinguru jakin batera egokitzea.	Elementu elkarreragileak eta jolasak sartzen ditut nik sortzen ditudan irakaskuntza-baliabideetan. Existitzen diren baliabideak moldatzen eta konbinatzen ditut, ikaskuntza-testuinguru eta -helburu jakin batera eta ikasle taldearen ezaugarrietara egokitutako ikasketa-jarduerak sortzeko. Ulertzen ditut baliabide digitalei esleitzen zaizkien lizentziak, eta badakit zer baimen dudan baliabideak moldatzeko.
Liderra (C1) 	Baliabideak bakarrik edo lankidetzan sortu eta moldatzea, ikaskuntza-testuinguruaren arabera, estrategia aurreratuak erabiliz.	Ikasteko jarduera digitalak sortzen eta moldatzen ditut, hala nola fitxa elkarreragileak, online ebaluazioak, elkarlanean ikasteko online jarduerak (wikiak eta blogak, kasu), jolasak, aplikazioak eta bistaratzeak. Ikasteko baliabideak sortzen ditut lankideekin batera.
Aurrendaria (C2) 	Baliabide digital konplexu eta elkarreragileak sortzea.	Aplikazioak edo jolasak sortzen ditut, nire ikasketa-helburuen lagungarri.









Baliabide digitalak kudeatu, babestu eta partekatzea

Eduki digitala antolatzea eta ikasle, guraso eta beste irakasleen esku jartzea. Isilpeko eduki digitala eraginkorki babestea. Pribatutasun- eta copyright-arauak errespetatu eta behar bezala aplikatzea. Lizenzia eta hezkuntza-baliabide irekiak nola erabili eta sortu ulertzea, eta lan bat norena den nola adierazi jakitea.

Jarduerak

- ◆ Baliabideak partekatzea estekak edo eranskinak erabiliz, hala nola e-mailen eranskinak.
- ◆ Baliabideak partekatzea online plataformetan edo norberaren edo erakundearen webgunean/ blogean.
- ◆ Norberaren baliabide-gordailua besteekin partekatzea, sarbidea eta dagozkion eskubideak kudeatuz.
- ◆ Baliabide digitalak erabiltzeko, berrerabiltzeko eta moldatzeko copyright-mugak errespetatzea.
- ◆ Iturrien erreferentziak behar bezala egitea copyrighta duten baliabideak partekatzean edo argitaratzean.
- ◆ Lizenziak (irekiak) esleitzea norberak sortzen dituen baliabideei.
- ◆ Neurriak hartzea datu eta baliabide konfidentzialak babesteko (ikasleen notak eta azterketak, kasu).
- ◆ Administrazioarekin edo ikasleekin lotutako datuak lankide, ikasle eta gurasoekin partekatzea, hala badagokio.

Bilakaera		Gaitasun-mailari buruzko adierazpenak
Hasiberria (A1) 	Estrategiarik ez erabiltzea baliabideak partekatzeko.	Baliabide digitalak gordetzen eta antolatzen ditut, etorkizunean erabiltzeko.
Esploratzailea (A2) 	Oinarrizko estrategiak erabiliz kudeatzea baliabideak.	E-mail eranskinen bidez edo esteken bidez partekatzen ditut hezkuntza-edukiak. Jabetzen naiz Interneten dauden baliabideetako batzuek copyrighta dutela.
Integratzailea (B1) 	Baliabideak eraginkortasunez partekatzea eta babestea, oinarrizko estrategiak erabiliz .	Hezkuntza-edukiak partekatzen ditut ikaskuntza-ingurune birtualetan, edo besteak beste ikasgai baten webgunean igoz, esteka jarritz edo txertatuz. Eraginkortasunez babesten ditut eduki konfidentzialak, hala nola azterketak eta ikasleen txostenak. Ulertzen ditut eskolarako erabiltzen ditudan baliabide digitalei (irudi, testu, audio eta filmei) aplikatzen zaizkien copyright-arauak.
Aditua (B2) 	Baliabideak modu profesionalen partekatzea .	Baliabideak partekatzen ditut, ingurune digitaletan txertatuz. Eraginkortasunez babesten ditut datu pertsonal eta konfidentzialak, eta baliabideetarako sarbidea mugatzen dut, hala dagokionean. Egokiro egiten ditut copyrighta duten baliabideen aipuak.
Liderra (C1) 	Norberak sortzen dituen baliabideak digitalki argitaratzea .	Eduki digitalen gordailu zabalak egiten ditut, eta ikasleen eta beste irakasleen eskura jartzen ditut. Online argitaratzen ditudan baliabideei lizentziak aplikatzen dizkiet.
Aurrendaria (C2) 	Norberak sortzen dituen edukiak profesionalki argitaratzea .	Iruzkinez hornitzen ditut partekatzen ditudan baliabideak, eta besteek aukera ematen diet iruzkinak egiteko, iritzia emateko, moldatzeko, berrantolatzeko edo horiei edukiak gehitzeko.